



❖ Ttarla

Izen emateko azken eguna

Ttarla dantza taldean ibili nahi duten neska mutilek gaur dute azken eguna izena emateko. 5 urtetik aurrerako haurrek eman dezakete izena, 2003tik aurrera jaiotakoek. Ttarlak dantza mutilen taldea osatu nahi luke eta herriko mutilak animatu nahi ditu parte hartzera. Gaur arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara eman behar da izena, Biterin. ||

❖ AAM

Kontzentrazioa gaur Zinkoenean

Kontzentrazioa izango da gaur Zinkoenean, *Gaixo larri eta kondena osoa beteta duten euskal presoak etxera* lemapean. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak dei egin die herritarrei bat egin dezaten eta kontzentrazioan parte har dezaten. 20:00etan, Zinkoenean. ||

❖ BITERIKO IKASTARDAK

Erreserban daudenen izen ematea

Biteriko ikastaroetarako erreserban daudenek gaur dute azken eguna izena emateko. ||

◆ PELOTA

Partidua gaur

Ojuel-San Sebastian senior mailako bikoteak Gipuzkoako txapelketako partidua jokatu-ko du gaur Zumarragan, Beloki taldeko bikotearen kontra, 21:15etan hasita. ||

◆ GIMNASIA ERRITMIKOA

Izena emateko azken eguna

Gaur da azken eguna gimnasia erritmikoan izena emateko. 2003 urtean edo lehenago jaiotako neska-mutilek eman dezakete izena, kiroldegiko sarreran. ||

Kronikako langileek ireki zuten atzo Garagardo Azoka, errugbi denboraldi berrirako animoak emanez

Azoka igandera arte egongo da irekita, gaur 19:30etatik aurrera eta larunbat eta igandean 12:30etatik aurrera.

HERNANIKO Kronikako langileak izan ziren atzo V. Garagardo azokako lehen tragoa hartu zutenak. Kronikako langileek Errugbi elkarteari eskertu zioten azoka irekitzera gonbidatu izana, eta azpimarratu zituzten errugbi elkarteak bere ibilbidean egindako lana eta izandako lorpenak. Hastear dute denboraldirako zorterik onena eta animo guztia eman zizkieten. Garagardo basoari heldu eta «osasuna eta kemena!» esanez egin zuten topa bertara gerturatutako guztiakin.



Kronikako langileek eman zioten hasiera V. Garagardo Azokari.

Igandera arte izango da azoka irekita, Atsegindegin Garagardo azokan trago bat hartu eta mokadu bat egiteko aukera izango da igandera arte. Gaur arratsaldeko 19:30etatik gaueko 01:00etara irekiko dute eta, larunbatean

eta igandean, eguerdiko 12:30etatik gaueko 01:00etara. Bazkaltzeko eta afaltzeko ordutegia eguerdiko 12:30etatik 16:00etara eta arratsaldeko 19:00etatik gaueko 01:00etara izango da. Gainerako ordue-

tan garagardoa edateko aukera izango da.

Azokaren bueltan, ekintzak

Azokaren bueltan larunbatean 23:00etan umorezko

monologoa izango da. Igandean umeentzako jokoak izango dira, Errugbi Eskolak antolatuta, 17:00etan Biterin. Igandean, bazkalostean mus txapelketa azkarra jokatu dute errugbiko beteranok. ||

❖ MUGIKORTASUNA IRAUNKORRAREN ALDEKO ASTEA

Herrian momentuz ez dira telekomunikazio ekipo eta antena gehiago jarriko

Sagastiyako ekimen pribatuko etxebitzak egiteko tramite bat ere onartu da.

GOBERNU Batzarra izan da aste honetan eta bertan erabaki da herrian ez direla telekomunikazio ekipo eta antena gehiago jarriko; tartean telefono mobiletako antenak. Aurrerantzean beharko balira, Santa Barbara eta kantera inguruan jartzea

proposatuko da.

Sagastiyako etxeak

Sagastiyako ekimen pribatuko etxeak egiteko tramite bat ere onartu zen Gobernu Batzarrean; jarduera programa hain zuzen ere. Hau onartuta, hurrengo urratsa izango da

urbanizazio proiektua onartzea, hau da, argia, telefono linea, eta kainuzuloak egiteko proiektua. Sagastiyen Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen etxebizitzaren gaikaldean egingo dira etxe hauek, guztira 8 etxe bifamiliar eta babes ofizialeko 22 etxebizitza.

Ubarrotora edateko ura eramateko egitasmoa

Ereñotzuko Ubarroto etxera edateko ura eramateko egitasmoa ere onartu zen batzarrean. Proiektuak 145.746 eurotako aurrekontua du. Orain obra egiteko enpresa kontratatu beharko da. ||

TRANBIA TABERNA

BETIKO JENDEA
BETIKO GIROA

PROBATU AL DITUZU GURE APERITIBO BERRIAK?

ORAIN LARUNBATA ETA IGANDEETAN **MARISKOA** BARRA-BARRA:

-HEXORAK
-KISKILAK
-LANPERNAX
-XARRAKELAK...

EGUNEKO MENUA
BAZKARI ETA AFARIETAKO ERRESERBAK
JANARI GUZTIA ERAMATEKO AUKERA
TFNOA: 943 33 69 49.
MARIJULIUS KALEA, 2 - HERNANI
ASTELEHENA ITXITA.

MASUSTA EKODENDA

PRODUKTU NATURALAK
MASUSTA

- Elikagai biologikoak
- Senda belarrak
- Kosmetika naturala
- Liburuak...

Horrez gain, hainbat ZERBITZU

KARDABERAZ, 43 - HERNANI
Tel.: 943 55 57 10

B A E L U
Iluminazioa

MODERNOA-DISEINOA
FORJA - KLASIKOA
BEIRA - BRONZEA-JARDINA

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

**BEHERAPENAK
MATERIAL LIKIDAZIOA**

ZUBIONDO POLIGONOA B2 - 9 LANTEGIA - 20120 HERNANI
☎ 943 33 50 05

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
☑ FARMAZIAK ● Egumez: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● Gauez: **Correa** Perkaitezgi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Lainoekin eta euriarekin hasiko dugu eguna. Arratsaldean giroak hobera egin eta alertu egingo du. Temperatura jaitsi egingo da, eta 20-13 °C artean ibiliko da.

BIHAR Giro eguzkitsuarekin hasiko da asteburua. Lainoak izango dira, lehen eta azken orduetan. Eguerdian zerua oskarbi izango da. Temperatura berdin

❖ MUGIKORTASUN ASTEA

Herrian barrena patinetan ibiltzeko aukera izango da bihar

Zirkuito bat osatu da herriko kaleetan barrena. Patinik ez duenak debalde alokatu ditzake batzuk zirkuitoan ibiltzeko.

MUGIKORTASUN Iraunkorraren aldeko astea izaten ari da egun hauetan eta egunero-egunero garraio ereduaren inguruko gogoeta egiteko ekintzak izan dira, Udalak antolatuta. Herri barruan kotxeaz aparte garraioak, hainbeste kutsatzen ez dutenak bultzatze aldera, Udalak zirkuito moduko bat osatu du herrian barrena patinez ibili ahal izateko.

Bihar goizeko 11:00etan hasita, Txantxangorri elkarte paretik abiatuko dira animatzen diren herritarrak, haur, gazte eta heldu. Ibilbidean zehar udaltzainak izango dira trafikoa mozten, beraz lasai ibili ahal izango da.



Urbieta kalea itxita dago egun hauetan, kotxeaz aparte garraioa bertan ibili dadin: patinak, oinezkoak, bizikletak...


Patinen alokairua

Patinik ez duenak ez du bihar zirkuitoan ez ibiltzeko aitzakiarik. Izan ere, Udalak patinak utziko ditu debalde. Horretarako goizeko 10:30-etatik 10:55etara Txantxangorri elkarte parean izango den postuan eskuratu ahal izango dira, karneta utzita. Patinak Gabriel Zelaia plazan bueltatu beharko dira, zirkuitoaren helmugan, eguerdiko 13:00ak bitartean.

Bestalde, eguerdiko 12:00-etan ginkana antolatu dute Gabriel Zelaia plazan. Bertan jokoak izango dira eta patinikin ibili beharko da.

Urbieta kalea moztuta

Mugikortasun astea dela eta Urbieta kalea moztu egin dute, kalea oinezkoentzako, patinetan eta bizikletan ibiltzen direnentzat berreskuratuzeko. ||



Bihar patinekin egin ahal izango den zirkuitoa.

❖ GRABAKETA

Bihar Plazan biltzeko deia

Bihar plazan biltzeko deialdia egin dute. Bertan grabaketak egingo dituzte urtarrean estreinatuko den Txanobarragorri antzezlanerako. Eskatu dute edozein motatako txanoarekin joateko. Bihar eguerdiko 12:00etan, plazan. ||

❖ ETXEBERRI ELKARTEA

Tute partidak jokatu dira gaur

Tute partidak jokatu dira gaur Etxeberri elkartearen. Honako bikoteak ariko dira: Cesar-Carlos/Yohana-Rodri; Urbi-Benito/Kapiska-Isaac; Txepe-Difun/Manolo-Cordero; eta Abel-Antonio/Axier-Jesus. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† ANGELA VILLAR URRESTARAZU

ANDREA
(Juan Ortega 'El Canario'-ren alarguna)
Atzo hil zen Donostian, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Santi eta Maite Zubeldia, Joaquin eta Margari Barrenetxea; bilobak: Israel, Santi, Maitetxu, Ainara eta Joana; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Familiak haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta jakinarazten dizue azken agurra eta errausketa familia artean egingo direla. Mila esker.



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Tabernaria behar da Hernaniko tabeman urte osoan lan egiteko (jornada osoa). Deitu: 616 589 445.

Etxea salgai Hernaniko kaxkoan (eraikin berria, 10 urte) + trasteroa. Deitu: 616 446 660 / 659 977 096

Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110

Furgoneta salgai, volswagen carabel, ondo zaindutakoa (ekipatua). Deitu: 663 649 765.

Pisu bila nabil Hernanin (alokairuan). Deitu: 626 802 083

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurraren garapena osasuntsua eta ziorontsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

BIDEA masajek. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Hasterako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informetiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



2008-2009 IKASTAROAK
IZEN EMATEA ZABALIK

- GAZTEENTZAKO, HELDUENTZAKO ETA ENPRESEENTZAKO IKASTAROAK
- DELF, DALF, EOI ETA BESTELAKO AZTERKETEN PRESTAKUNTZA
- TALDEKAKO IKASTAROAK ETA KLASA PARTIKULARRAK

Antziola, 26 - HERNANI
609 85 96 69



OINDI



taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509



Maiatzatik Irailera gauero* zabalik
Asteko menu berezia ikusteko:

www.goiegi.com

GOIEGI
Jatetxea - Restaurante

Irubide bailara 1 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78